

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 204. alea - 2016ko otsaila

ITSASOAREN INDAR ERAKUSTALDIA, BESTE BEHIN





Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

Bordatxo

JATETXEA

Zesterokua Plaza
Tel.: 943 029 376
Bazkariak: 13:00 / 16:00
Aftariak: 20:00 / 23:00

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

A D

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127
HONDARTZA, 2 - BEHEA Fax: 943 192 482
20820 DEBA (GIPUZKOA) ase.deba@teleline.es

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso

Autozerbitzua



Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA



Pintxoak
Ogitartekoak
Plater Konbinatuak

Lersundi kalea, 9
Tel. 943 029 488 - 618 644 014
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)



Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

Seven Clovers

Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

204. alea - 2016ko otsaila

AURKIBIDEA

04

KOLABORAZIOAK

Nagusilan, Ibon Urkia, Errima Frustratuen Kluba, Oporrak Bakean.



08

ALBISTEAK

Omenaldia egin diote Asier Riesgo futbolariari Errota Zaharren



10

INAUTERIAK

Inauterietan ateratako argazkien bilduma: Euskal Ezkontza, mozorro lehiaketa...



13

KRONIKA

Literatur lanak aitita-amamentzat: sari banaketa Arbil Jubilatuen Elkartearen



14

B. GAZTEA

Drogen kontsumoaren prebentzio saioak, elkarrizketa Martin Hernandez Beitiari...



BERRIKETAN

Iifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefona: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA

Zuhatzza
Euskara elkarteak
Muzikaz dego

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hazuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Salburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatzza Euskara Elkartearen

Erredakzio taldea eta kolaboratzaileak:

Nagore Dorransoro, Xabier Laka, Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai, Lukax Dorransoro, Izaro Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite Rodriguez, Gilen Garcia, Eider Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane Aizpurua, Haika Aizpurua, Nekane Goikoetxea, Mattin Urbietia, Mikel Aizpurua, Errima Frustratuen Kluba, Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Erredakzio taldea

Publizitatea: Joseba Escudero eta Koldo Aperribai **Tlfnoa.:** 943 19 13 83

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua **Maketazioa:** Leire Rubio

Inprimategia: Euskalinpuri


Tirada: 1.400 ale

Lege gordailua: SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Zuhatza Euskara Elkartearen batzar orokorra, martxoaren 4an

Zuhatzakide agurgarria:

Lerro hauen bitartez urteko Bazkideen Batzar Orokorreko deialdia egiten dizugu. Bertan, 2015. urteak eman duenaren berri eman eta etorkizunerako ditugun asmoak zurekin (BAZKIDE) konpartitu eta adostu nahiko genituzke. Batzarra datoren martxoaren 4an (ostirala) egingo dugu, arratsaldeko 18:00etan, Zuhatzaren bulegoan (Ifar kalea 12, behean). Hitzordura hurbiltzerik ez baduzu, zure proposamen, kritika edo iradokizunen berri emateko Zuhatzaren bulegotik pasa edo gurekin harremanetan jarri (943 19 13 83 telefono zenbakira deituta edo koordinatzailea@zuhatza.com helbidera idatzita).

Batzarrean 2015eko gestio-balantzea eta 2016rako aurrekontuak eta egitasmoak azalduko ditugu. Ohiko ekime-

nez gain, elkarteak gogoeta prozesu bat abiatu nahi du aurten eta asmo horren berri emango du batzarrean. Euskara eta euskal kulturaren aldeko dinamizari jarraipena eman ahal izateko, Zuhatzak behar-beharrezkoa ikusten du elkarteko bazkideen inplikazioa eta babesia.

2015. urterako aurreikusita zeuden ekimenak aurrera ateratzea lortu da, eta hori denon borondateari esker izan da posible. Aurten ere lanean gogotsu eta ilusioz jarraitzeko asmoa dugu. Hurbil zaitetz Zuhatzara, gurekin batera hau guztia egitera. Ateak zabal-zabalik dituzu! Besterik gabe, martxoaren 4ko batzarrean elkar ikusiko dugulakoan, agurtzen zaitugu.

Zuhatza Euskara Elkartea

Nola bizi dugu zahartzaroa? Pozik?

Gure bizitzako egunik atseginenetakoa 18 edo 21 bete genituen izan zen, noski. Helduak ginen jada! Iritsi ginen 30 betetzera eta 40ra hurbiltzen joan ginen... Woaaa! Zer da hau! Abiadura ederrean doaz. Ohartu orduko, 50 urte genituen gainean, eta gaztetako gure ametsak lausotzen hasi ziren. Abiadura kontrolatu ezin heldu ginen 60 betetzera. Ezin genuen hura egia zenik sinetsi. Konturatu baino lehen... 70 genituen gainean.

Hori eta gero, hobe polikiago ibiltzea, egunetik egunera, hilabetetik hilabetera, urtetik urtera... Eta hasi gara "dagoneko" zahartu egin garela ohartzen. Baina, ez dugu etsitzen! Ze, ohartu ginen baita ere...

Burubidez zahartzea ez dela zahartzea. Zahartzea ez dela arduratzeko kontua, zahartu itxura ematea, hori bai!

Idea berriei atea ixten diegunean zahartzen gara. Besteez ahaztuta, geure buruaz gehiegi arduratzen garenean zahartzen gara. Borroka egiteari uzten badiogu, orduan zahartzen gara! Geure burua "zahartzat" jotzen badugu, zahartu egiten gara.

Ez gara zahartzen azala zimurtzen zaigunean, gure ametsak eta itxaropenak zimurtzean baizik.

Pertsonak ardoak bezalakoak gara: urteek hondatu egiten dute ardo txarra; ardo ona, berriz, hobetu.

Gaztetan ikasi egiten dugu, adinarekin ulertu.

Atzera begiratu soilik uler dezakegu bizitza... bizia, ordea, aurrera begiratu.

Bi gauza bakarrik gal ditzakegu: denbora eta bizia. Bigarrena galtzea ezin da ekidin; lehena, barka ezina da.



Denok gaude bizitzaren eskolan matrikulatuak, non maisua denbora den; eta gu azken kurtsoan gaude matrikulatuak.

"Ezin dugula lasterka egin, goazen ibiltzen.

Ibili ezina dugula, hartu makila".

Garrantzitsua ez da zenbat urtez bizi garen, urte horietan zenbat bizi garen baizik.

Ez diogu utzi behar ikasteari.

Gaitz egiten digunetik jubilatuta behar dugu, sekula ez on egiten digunetik.

Bizi garen arte, BIZI!

Ez adinik har... Eutsi biziari.

Bizi zeure bizitza eta ahaztu zure adina!

Nagusilan Deba



IBON URKIA NOLA?

New Orleanseko musikariekin elkarlanean izan da, oraingo honetan, Fermin Muguruzak aurkeztu berri digun azken lana. Goroldiorik nekez lotuko zaio irundarrari, arraioa!

Kontua da Missisippiko oihartzuna etenik gabe darion disko honetan ingelesez jardun duela, lotsa gutxi erakutsiz, gure Ferminek abesti batean. Eta Negu Gorriak garaiko pasadizo xelebrea bat ekarri dit gogora.

Artean hogeit urte eskas neuzkala ikasleonek udarako oporraldian atzerrira joatea otu zitzaidan. Egia esan, Eskoziak sorrarazten zidan nolabaiteko erakarpenik. Gainera, lehengusu batek urtebete zeraman Edinburgon master batean buru-belarri. Honenbestez, birritan pentsatu gabe, han abiatu nintzen behi tximaluze gorrixken lurraldera.

Donostian hartu autobusa eta azkenaldian hainbeste entzuten den Frantziako Calaisera. Mantxako Kanala ferryz gurutzatu eta berriro autobusez Doveretik London Cityra. Bizpahiru orduko itxaronaldia Victoria Station inguruan eta azkenik jomuga: Edinburgo. Orotara hogeita bost ordutik gorako bidaia, tira.

Behin iritsita, institutuko ingeles maila kaxkarrarekin, nahikoa murriztak dira aldi baterako lantxo bat topatzeko aukerak. Oso ohikoa da plater garbitzailearena, eta dagokidanez ezin esan salbuespen izan nintzenik.

Iritsi da abuztua eta hiriko gaztelupean den lorategi ikusgarrian ospatzen den nazioarteko festibala aitzakiatzat hartuz beste bi senide agertu zaizkigu bisitan. Nolakoa izaten den batzuetan halabeharra, hauetariko bat Muguruzatarren euskara irakasle gisa aritu zen Irungo AEKn.

Abagunea aprobetxatuz Fermin eta bere neskalagun Joneren deia jaso du anfitrioiarena egiteko aukerarik balegokeen galde eginez. Ezin ezezkorik bota. Ondorioz, lagun talde polita bildu gara Edinburgoko festibalaren bueltan.

Inguruak ezagutu asmoz egun-pasako txangoa antolatu dugu. Gainontzekoon ingelesez jarduteko maila erdipurdikoa izatera ere iristen ez denez, jada bertan urtebete daraman lehengusu Itziarrek egin digu kotxea alokatzeko kudeaketa. Horrenbestez, hitzordua jarri eta abiatu gara boskotea, Iparralderantz, Rover dotore batean.



Eskoziako Goiherri, Highlands, da jakin-mina piztu duguna eta erabakia aho batez hartzea oso erraza gertatu zaigu. Bagoaz, esan bezala, iparralderantz Edinburgo eta Inverness artean diren 250 km-an barrena. Paisaia benetan da ederra. Hamaika formadun aintzirak han-hemenka, baso amaiezinak, gazteluak nonahi, mendi tontor higatuak... badarrie zirrarak, bai, halako parajeei.

Gure intentzioetan bat Inverness Highlandsetako hiri-burutik kilometro gutxira dagoen Ness lakua ikustea da. Ea, bidenabar, Nessie munstro famatua agertu behar zaigun.

Norbaitek ekarri duen eskoziar gaita-joleen musikaz giroturik iritsi gara eguerdirako Invernessera eta oraindik hiria atzean utzi ez dugula, gaita-joleekin kantari goazela, hona eta hara begira, gasolinera saihesteko gelditzearen muturra negarrez hasteko moduan geratu da. Eta hau gutxi balitz, gero eta zabalgia den putzu berdeska du azpialdean.

Kaskarreko arinen bat edo beste ezeean, onik gara guztiok hiru autoetan. Hori bai, gure Rover elegantearen muturra negarrez hasteko moduan geratu da. Eta hau gutxi balitz, gero eta zabalgia den putzu berdeska du azpialdean.

Berandu baino lehen polizia agertu eta gugana hurbildu dira dokumentazio eskean. Zalantza izpirik ere ez da gertatu denaz eta halako katramila nork sortu duenaz. Gu geu, alegia.

Paperak egiaztatu ostean gure gidari zihoan Fermi deitu dio ia bi metro luzeko polizia kan-

kailuak eskuetan alkoholometroa duela. Hasi zaigu tramankuluarri buruzko azalpenak emanez eta neronek txoferraren alboan adi-adi, interprete lanetarako edo. Itzuli diot, nola edo hala, entzundakoa eta baita honek putz egin ere. Froga gaitzua, garabi beharrean gara autoa ez baitago, inolaz ere, martxan jartzerik.

Egoeraren larriaz jabetuta ordezko automobila lortzen saiatu gara telefonoz Edinburgoko bulegoarekin baina alfer-alferrik. Antzarak perratzerak bidali gaituzte zuzenean. Beraz, ez Ness lakurik, ez Highlandsetako herri-kirol ikuskizunik eta ez Nessie munstrorik. Oraindik talo aurpegia aldatu ezinik trenez itzuli behar bostok Edinburgora. Hori bai, Bravehearten lurraldera itzuliko gara geure buruari zin eginez.



Errima Frustratuen Kluba

Mutrikuko Bertso Eskolarekin dugun harremana dela eta, bertako bertso paper lehiaketako nagusien mailako irabazlearen bertsoekin gatoz oraingoan. Honakoak dira Iñigo Andonegik "Okelar" gaia hartuta egin zituen bertsoak.

-1-

Bihotza zimel, besoak ihar...
hau da atarramendua!
Urte luzeen ajeek eta
naukate erdi zendua,
nire bi oinei ahaztu zaie
zemaidaten sostengua,
gurpildun aulki batean soilik
aurkitzen dut sosegua,
nago aurtengo hauze izango
dudala azken negua.

-2-

Burua daukat iraganeko
egun ederrez beteta.
gaur hartuko dut horietako
batzuk aletzeko beta.
Bada baserri apal samar bat
Arno oinetan gordeta,
han jaiotzea baino hoberik
ezin zitzaidan suerta,
bere pobrean munduko xarma
denak biltzen zitun eta.

-3-

Supazterreko sehaskan goxo,
jira-biraka otoitzak,
jaso nituen aitamei esker
euskarazko lehen hitzak,
panderoaren txinparta eta
bertso idatzien printzak,
nolabait ere gaur bertsolari
bihurtu banau bizitzak,
sutondo xume hartan bilatu
ezusteko horren giltzak.

-4-

Lurra biraka dabilenetik
goseak ez du jolasik,
Okelarreko lanei bulartsu
lotu nintzaien goiz-goizik,
abeltzain eta belar berrien
usain berdeakin pozik,
eskolarako ordu eskastxo
neuzkalako izan ezik,
munduan ez zen zorion hura
areagotzeko sosik.

-5-

Ekia piztu eta itzali,
jakin nuen berehala
neskei begira ninia gizen
bilakatzen zitzaidala,
eta oldartzen hasia zela
nire sabelpe apala,
amoranteen mainak ibili
nituen behar bezala,
baina mutilzahar darrait oraindik
jaunak nahiko zuen hala.

-6-

Gustura bizi beste lanik ez,
sortu zitzaizkidan penak
soldadutzara Madrileratu
ninduenean gau trenak.
Utikan hango desfile gangar
eta mosketoi herrenak,
nintzenagatik merke luzatu
ohi zizkidaten eztenak.
Jakin hobeto nintzela hemen
zimaurrez galtza-barrenak.

-7-

Ene ezinek ez dezatela
barregurarik zugan sor,
gainerakoan izan dut eta
hamaika pozbide koskor,
lagunarteko afariak han,
santa eskeak berriz hor,
oraintxe bertan bihotza bete
bertso darabilkit bor-bor,
hutsaren hutsa badira ere
sentiarazten naute nor.

-8-

Ez nauzue ni Okelarreko
arbolan txori bakarra
Modestok zuen nire aldean
txorrotxio fin azkarra,
urteak dira hartu zuela
zerurako bide zaharra,
plaza gutxiko bertsolaria,
koplarietan izarra,
hari zor diot oroz gain nire
bertsoetarako harra.

-9-

Anaia biok besarkatuko
garen goiza dago hurbil,
noiz eta nola ez jakitean
aztoratu xamar nabil.
Betidaniko zuen beroa
eskertzeke ez dut nahi hil,
"euskaraz maite zaituztedala"
esan eta noa trankil,
heredentzian uzten dizuet
dozenerdi bertso hozkil.

Letra: Iñigo Andonegi; Doinua: Mutil koxkor bat itsu aurreko.



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Enpresa Registrada Nº 2/05/049
NIVEL 2



Basamortutik Euskal Herrira, Sahararik gure etxera!

Erakundeek, familia hartzaileek, hedabideek eta hainbat lagunek Errefuxiatuen Kanpalekuak bisitatzeko dituzte. Arrazoiak da, batetik, gizarteari Saharako Herriaren egoeraren berri eman behar zaiola; eta, bestetik, hemengo erakundeek nazioarteko komunitateari jakinarazi behar diotela Saharako Herriarekin bat datozela eta haien egoera salatzen dutela.

Gipuzkoako Sahararen aldeko elkarteek laguntza eskatzen diegu Euskal Herriko familiei. Urtetik urtera jaisten doa udan saharar haurrak etxean hartzeko familia kopurua. Eta hori hala izanda, elkartearen kezka handia da. Izan ere, hain beharrezkoa den Oporrak Bakean programa kolokan jarri daiteke urte gutxitan, baldin eta familia berriak azaltzen ez badira.

Oporrak Bakean programa elkartasun ekimena da. Hau da programaren helburu orokorra: bi hilabetez bada ere (uztaila eta abuztua), 10 eta 12 urte bitarteko haurrak saharar errefuxiatu kanpamentuetatik ateratzea eta, bide batez, desertuan udako bi hilabete horietan pairatzen den tenperatura altuetatik babestea.

Gainera, mediku azterketak gauzatzen zaizkie eta oinarrizko arazoak konpontzeko bidean jarri. Bestalde, elikadura gabezien ondorioz sortutako kalteei aurre egiten zaie. Azkenik, euren herriak pairatzen duen egoera ezagutaraztera ematen dute hurrek; alegia, bi herrien arteko kultur trukaketa gauzatzen da, familien arteko erlazio estua lortuz eta kooperazioa bultzatuz.

Elkarbizitza hau bi aldeentzat da aberasgarri, hurrek



Aurtengo kanpaina Donostian aurkeztu genuen, urtarrilaren 29an.

saharar errefuxiatu kanpamentuetatik oso ezberdinak diren gauzak ikasten dituztelako, eta guretzat herri xume horrek dituen baloreak, kultura, egoera... gertutik ezagutzeko aukera paregabea delako.

Programa hau aurrera eramateko beharrezkoa den gauza bakarra **ZURE ELKARTASUNA** da.

Horregatik, gugana hurbildu eta programa ezagutzera animatzen zaituztegu. Asko da haur hauengandik jasoko duguna eta saharar errefuxiatuek asko eskertuko dute!

Basamortutik Euskal Herrira, Sahararik gure etxera!

Interesa duzuenok jarri inolako konpromisorik gabe gurekin harremanetan honako helbide elektronikoan: oporrak-bakean@gmail.com. Sahararen aldeko edozein elkartetara ere jo dezakezue informazio bila.

Oporrak Bakean ekimeneko kideak



**JOXEAN GALDONA
AIZPURUA**

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta inplanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba



English Academy
**NORTH
STREET
ENGLISH**

Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba
rhorton4@yahoo.es

Omenaldia egin diote Asier Riesgori Errota Zaharren



Otsailaren 13an, larunbata, omenaldia egin zioten Asier Riesgo jokalarari debarrari Errota Zaharren. Amaiak Bateko ohorezko erregional mailako taldeak sailkapenean hirugarren postuan dagoen Urolaren aurkako partida jokatu zuen arratsaldean –lehia 1-1 amaitu zen-. Eta, partida horri hasiera eman aurretik, “merezitako omenaldia” egin nahi izan zioten gaur egun lehen mailako Eibar taldean jokatzeko duen Asier Riesgo atezainari.

Orain arte futbolean egin duen ibilbide “bikaina” nabarmendu nahian, Amaiak Bateko argazkien collage bat oparitu zion Riesgori; bertan, Asierrek talde ezberdinetan egindako ibilbidea iruditzen jasota ageri da. Eta, opariaz gain, otsailaren 13ko partidaren ohorezko satea egin zuen Riesgok. Amaiak Baten zuzendaritzako kideak eta zaleak ez ezik, Eibar taldeko Alex Aranzabal presidentea ere omenaldian izan zen.

Asier Riesgok herriko Amaiak Bat futbol taldean



egin zituen lehen urratsak. Harrezkero, infantiletan zebilela, Real Sociedad B-n ibili zen, eta gerora ezagutu ditu Eibar, Erreala, Huelvako Recreativo edota Osasuna taldeak. Eibarren ari da gaur egun atezain debarra, eta berriki beste bi urtez luzatu diote kontratua bertan.

Europako Geoparkeen Sarearen batzarra, Euskal Kostaldeko Geoparkean

Europako Geoparkeen Sarearen 37. Koordinazio Batzarra hartuko du Euskal Kostaldeko Geoparkeak martxoaren 16tik 19ra. Itziarke Salegi jatetxean elkartzeko dira UNESCOko eta Europako Geoparkeen Sarea osatzen duten 69 geoparkeetako ordezkariak, 23 herrialdeetakoak. Guztira, 130 lagun bilduko dira.

Leire Barriuso Geoparkeko gerentearen hitzetan,

“batzarra Geoparkean egitea aukera bikaina da, bai nazioarte mailan izango duen oihartzunagatik, bai Geoparkea osatzen duten hiru herrietan –Mutriku, Deba eta Zumaiia– ekonomikoki izango duen eragin positiboagatik”. Halaber, bilkura Donostiako Kultur Hiriburutzarekin lotuko da eta martxoaren 17an bisita egingo dute Donostiara.

Ekintzailtza tailerra Deban, Udalaren eta Debegesaren eskutik

“Deba Ekinean” izenburupean, Debako Udalak eta Debegesa garapen agentziak herriko ekintzaileei zuzendutako doako tailerra antolatuko dute. Ekintzailtza eta enpresa berrien sorrera sustatzea du helburu tailerrak, eta parte hartzeko baldintza bakarra da “ekiteko gogoia izatea eta ideia, proiektu edo negozio bat abian jartzeko prest egotea”.

Parte hartzeko interesa duten herritarrek aurrez eman behar dute izena ekintzaile@debegesa.eus helbidera idatzita edo Debegesara deituta: 943 82 01 10.

Tailerrak 24 orduko iraupena izango du, sei egunetan banatuta, eta Debegesako teknikariek gidatuko dute. Taldea osatzen denean erabakiko da egutegia eta ordutegia.

Elias Olalde alkate ohia zendu da

Elias Olalde Urquiri debar ezaguna joan den urtarilaren 31n hil zen, 80 urte zituela.

Hamasei urtez izan zen Debako udalbatzako kidea. 1983an, independente gisa, EAJko zerrendetan aurkeztu zen udal hauteskundeetara. 1983 eta 1987 urte bitartean Debako Udaleko zinegotzi eta Hirigintza Batzordeko lehendakaria izan

zen, Iñaki Elosua Elu alkate zela. 1987an, EAJko zerrendaburu aurkeztu eta Debako alkate hautatu zuten, eta 1999ko uztailean arte aritu zen alkate karguan.

Bere aldeko hileta ospakizuna pasa den otsailaren 1ean egin zen, Debako Santa Maria Elizan.



Kalte material handiak sortu ditu berriz ere itsasoak



Aurtengo otsailean ateratako argazkiek gogora ekarri dizkigute orain bi urte itsas denboraleak gure kostaldean eragindako kalteak. Leku eske aritu zaigu berriz ere itsasoa. Kalte material handienak, oraingoan ere, itsasertzetik hurbilen dauden eraikin eta instalazioetan sortu ditu.





INAUTERIAK





Abian da Zubeltzu Bertso Paper Sariketa

Lanak aurkezteko azken eguna martxoaren 18a izango da. Animatu eta parte hartu!

Zazpigarren edizioa du aurten "Zubeltzu" Bertso Paper Sariketak.

Debako Udalaren eta Zuhatza Euskara Elkartearen arteko ekimen honek hiru maila bereizten ditu: LHko neska-mutilak (2004an jaiotakoak edo gazteagoak), DBHkoak (2000-2003an jaiotakoak) eta nagusiak (1999koak eta zaharragoak). Maila bakoitzari ariketa ezberdina egitea eskatzen zaio; lehenengo bietan gaia jarri eta helduenean, berriz, libre lagata.

Sariketa Debako eta Itziarko herritarrentzat antolatuta da eta bertsoek jatorrizkoak, argitaratu gabeak eta inon saritu gabeak izan beharko dute. Egileak neurria eta doinua aukeratu ahaliko ditu, baina doinua zein den adierazi beharko da. Bertso bakoitzari bere ordena zenbakia jarriko zaio.

Lanak aurkezteko azken eguna martxoaren 18a izango da. Posta elektronikoz bidali daitezke: euskara@deba.eus (Udala) eta koordinatzailea@zuhatza.com (Zuhatza) helbideetara. Posta arrunta erabiliz gero, eta ahal bada, CD batean grabatuta bidaliko dira bertso paperak. Helbideak: Debako Udala-Euskara Saila (Portu kalea 1). 20820 Deba; Zuhatza Euskara Elkarte (Ifar kalea 12, behe). 20820 Deba.



Bertso paper sariketa hau Jose Antonio Sorazu "Zubeltzu"ren omenez antolatzen da eta, lehiaketaren aitzakiarekin, bertsolariaren ibilbideaz zertzelada batzuk eskaini nahiko genituzke oraingoan.

Bertsolaria Mardari auzoko Zubeltzu-Zahar baserrian jaio zen, 1894ko uztailaren 12an, zortzi senideko familia batean. Arroako Gorrianekea etxean debutatu zuen, 15 urte baino ez zituela eta garai batean, batez ere gerra aurretik, askotan ibili ohi zen plazaz plaza kantari; Frantzes Txikia, Txapel eta Txirritarekin batera hasieran, eta Basarri

eta Uztapiderekin ere gerora.

Bizimodua ateratzeko, nekazari-tzan, harrobian eta itzaintzan saiatutako gizona izan zen Zubeltzu.

Urteetan aurrera egin ahala, gero eta bertso saio gutxiagotan aritzen zen eta, hori hala izanik, saioaren bat izaten zuenean jendeak gogoz eta esker onez entzuten zuen. Eskola zaharreko bertsolariaren lan ugari idatziz jaso zituzten haren ingurukoak.

Deba herriaren omenaldia ere jaso zuen Mardariko bertsolariak. Lazkano, Agirre, Gorrotxategi, Lasarte, Lazkao Txiki, Lizaso, Mugartegi eta Arozamena bertsolariak kantatu zuten haren omenez, eta baita Basarrik eta Uztapidek ere, eta hainbat opari jaso zituen Eduardo Galarraga alkatearen eskutik.

Eugeni Idiak ez lobarrekin pasa zituen azken urteak, Lasao Haundi base-rrian, eta bertan zendu zen 1975ean.

Alex Turrillasen eta Jose Ignacio Trekuren "Deba. Ibilaldi bat gure historian zehar" liburuan ez ezik, Zubeltzuren biografia eta ibilbidea jasota daude Antonio Zavalak Auspoa liburutegiaren bitartez 1970ean kaleratutako "Zubeltzu ta Saikola bertsolariak" izenburuko bilduman ere (interneten ikus dezakezue).

Apirilaren 7an amaituko da

"Herriak garbi nahi ditugu, ekin!" bideo-lehiaketan parte hartzeko epea

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz, Debanatura elkarteak abian du "Herriak garbi nahi ditugu, ekin!" bideo-lehiaketa. Azaroan abiatu zen ekimena, Europako Hondakin-prebentziorako Astearen baitan, eta bideoak aurkezteko epea apirilaren 7ra arte luzatu dute.

"Zaborra murrizteko proposamenak" jasotzea da lehiaketaren ideia nagusia; alegia, "eskolan, etxean, kalean... zer zarama sortzen dugun eta zarama-kopuru hori nola gutxitu dezakegun aztertuz, hondakin horiek birziklatzeko, murrizteko eta berrerabiltzeko prozesuak lantzea eta hortik hondakin-prebentziorako ideiak proposatzea" bilatzen dute antolatzaileek. Debanaturak azaldu bezala, hain zuzen ere, aipatutako helburuak lortze aldera, kontsumitu beharreko elikagaiak egoki kudeatzeko beharra nabarmentzeko eta, hala, zaborrik ez sortzeko eta bio-hondakin gutxiago sortzeko ideiak baloratuko dira.



Lehenengo edizio honetan, lehiaketak bi atal ditu. Lehenen "Eskolak Garbi, Zero Zabor-Birziklaiaren bidea"-, Lehen Hezkuntzako 3. zikloko eta DBHko 1. zikloko ikasleei zuzenduta dago. Bestean, berriz, herritar guztiak parte har dezakete; "Herria garbi nahi dugu, ekin!" lelopean, hondakin-prebentzioaren arloan kontzientziaziorako jarrera onak sustatzea da helburua. Atal batean zein bestean, parte-har-

tzaileek teknika ezberdinak erabili ditzakete bideoak egiteko (gehienez ere bi minutukoak izan behar dute) eta lanak aurkezteko epea apirilaren 7an amaituko da. Informazio gehiago: <http://herriakgarbi-rikzsb.blogspot.com.es>, debanatura@hotmail.com edo 94 319 11 72 / 695 783 656 telefono zenbakiak.

Martxoan eta apirilean, tailer bana

Bestetik, "Herriak Garbi, Zero Zabor-Birziklaiaren Bidea Debarrenean" programaren baitan bi tailer egingo ditu Debanaturak. Martxoaren 20an izango da lehenengoa: "Familian birziklatzea dibertigarria da!" (4-8 urte bitarteko haurrak dituzten familiei dago zuzenduta eta doan izango da). Apirilaren 17rako dago aurreikusita bigarren hitzordua: "Birziklaiaren, konpostaiaren eta etxerako Vermi-konpostaren tailerra", herritar guztiei eta familiei zuzenduta.



Literatur lanak aitita-amamentzat

“Eskutitz zoragarriak aurkeztu dituzte Arbil Elkarteak antolatutako lehiaketara”

Gabonak alaitasun egun, elkartasun egun, etxeokak gurasoen inguruan biltzeko egun, urtean zehar bizi izan ditugun historiak, istorioak eta ipuinak elkarri kontatzeko egun izan ohi dira. Eta, hemen gaude gu, herriko zaharren etxean, herriko gazteenen irri eta urduritasunen giro bizian, ipuin lehiaketa hunkigarri baten festan.

Ba ote da Gabon alaiari hasiera emateko modu hoberik?

Gazteenak zarete, eta, zahar honi bederen, dagoeneko, alaitu diozue Gabon Aldia, zuen eskutitz zoragarriak irakurtzeko parada ematean.

Eskutitz zoragarriak esan dut; eta, ez dira esaldia dotoretze-

ko aukeratu ditudan hitzak, ez, aitona-amona zoragarrien argazkiak, zoragarri atereak, aurkeztu dizkiguzuelako baizik.

Hunkigarri hitza ere erabili dut; eta, barru-barrutik irten zaidan hitza da, ia eskutitz guztiek hunkitu binaute lehen irakurraldian bertan, dudarik gabe zuen aitona-amonak, dauden tokian daudela, eskutitz hauek jasotzean, hunkitu bide dituzten bezala.

Badakit denok jasoko duzuela saria. Hala hobe!, denok merezi baituzue. Hala ere, hiru onenentzat sari bereziak jarri dituztenez, nire gustukoena zein izan diren esatera behartu nau horrek. Beraz, hona hemen nire iritzia:

1. saria: “Gure aitona-amonak”

Idazlan eder, argi eta poetikoa da. Hona zatitxo bat:

*Kalean goazenean,
Dirua eskatu gabe,
Paga ematen digutenak.
Lagunekin joan eta, amonak,
muxu bat ematerakoan,
ezpainetakoaren marka masailean
uzten digutenak.
Beraiengandik urrun egon eta,
ikusterakoan,
berehala agurtzen gaituztenak.
Nahiz eta adin zaharrekoak izan,
bederatzi urteko ume baten
alaitasuna dutenak...*

(Idazlea: Lorena Ladera Osa)

2. saria: “Aitxitxa”

Idazlan ederra da, deskribapen harrigarri zehatz samurrez jantzia. Zatitxo bat:

*“Egun polita zen hura. Eguzkia atera zen, txoriek euren melodia polita abesten zuten bitartean.
...bat-batean nire aitari deitu zioten... ..Nire aitari malko bat erori zitzaion eta aho-zabalik geratu zen. Ezin zuen sinetsi...
...Nire nebaren malkoak nola irrist egiten zuen ikusi nuenean, ni ere negarrez hasi nintzen... eta nire beste aitxitxa aitaren bila etorri zen, eta, gure aita eraman zuen bere aita ikustera.
...Nire ama, neba, txakur ilehoria eta ni Debara bueltatu ginen, oinez.
Egun polita izaten hasi zen; baina, denontzat egun grisa izaten bukatu zuen”.*

(Idazlea: Maria Faces Ansola)

3. saria: “Kaixo, amama Ixabel”

Idazlan ederra da. Zorionaren bidean elkartasunaren gorazarrea egiten du, aberastasuna gutxietsiz. Adibidez:

“...Momentu zailenetatik ere atera egin gara, biok batera, elkarri lagunduz. Zu edukitzea..., munduan dagoen zortzerik onena da. Aberatsa, famatua,... izatea baino mila aldiz hobea... Horiei nik irabazten diet pertsona normala izanda. Zu edukita soilik... Nire bizitzaren parte handi bat zara, nire eguneroko irribarren zergatia”.

(Idazlea: Paula del Olmo)

Sari berezi gehiagorik ez badago ere, zilegi bekit lau aipamen berezi egitea, txalo berezi bana jaso dezaten, ondoko esaldi hauek idatzi dituztenek, lan luze eta bikainagoak idazteko ere gauza direla adierazi baitigute.

Aipamen berezia: “Aitxitxa maitea”

“Zu ehizara joaten zinen zure eskopeta eta zure txakurrarekin, Pintxorekin. Zu hil zinetetik oso gutxira hil zen Pintxo, eta nik oso gaizki pasatu nuen; zure txakurra zenez, nire gogokoena zen eta, horregatik pasatu nuen hain gaizki”.

(Idazlea: Aimar Arrieta)

Aipamen berezia: “Amama”

“Ama, zer gertatu zaizu? Galdera hau egin nionean amaren aurpegia erabat aldatu zen. Modu apalean, zure hanka oker eta zatar horiek zuzen eta eder jartzeko operatu beharra zenuela esan zidan”.

(Idazlea: Elene Izeta Odriozola)

Aipamen berezia: “Kaixo, amama Mari”

“Ba al dakizu zu zerura, betiko deskantsatzera, joan zinenean, zuhaitz bat landatu zela (Zubeltzu Torren), zure omenez? Jakin ezazula oso polita dela landatu zen urki-zuri eder eta fina”.

(Idazlea: Enaitz Goikoetxea)

Aipamen berezia: “Maite zaituztet”

“Ez dakizu zer duzun, galdu arte, eta, galdu zaituztedanetik, maite izan dut zuen zati bat, ez dudana inoiz maite izan: zuen irudia egunero ikusteko aukera”.

(Idazlea: June Rodriguez Salgado)

Zorionak idazleoi. Zorionak zuen irakasleei. Eskerrik asko Arbil Jubilatuen Elkarteari, lehiaketa polit hau aurrera ateratzegatik.
Lukax Dorronsoro

2016ko otsaila
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrean Sortua

BERRIKETAN GAZTEA

Drogen kontsumoaren prebentzio saioak DBHn

"Drogen kontsumoaren prebentzioa"-ri buruzko saioak izan dituzte DBHko laugarren mailako ikasleek. Urtarrilaren 11, 12, 13 eta 14an garatu zen ikastaroa, eta talde bakoitzak lau orduko prestakuntza jaso zuen. Xare Pagazartundua hezitzaileak zuzendu zuen ikastaroa.

Mendata institutuak nerabeen drogomenpekotasun prebentzioaren inguruko saioak aspalditik antolatu ohi ditu, prebentzioa ikasleen artean lantzea ezinbestekoa baita. Horretarako, hiru eremu ezberdin bereizi dira: prebentzioa familian, prebentzioa eskolan, eta prebentzioa aisialdian.

Ikasleek drogen kontsumoari lotzen zaizkion arriskuen murrizketarako bi orduko bi saio egin zituzten. Saioek prestakuntza izaera izan zuten. Eta saio horietan, ikasleek euren kezkek argitzeko aukera ere izan zuten.

Saioen helburuak honako hauek izan dira:

- Hurbilen dituzten drogei buruz duten informazioa zabaltzea eta hobetzea.
- Drogen erabilera desegokiak eragiten dituen arriskuak ezagutzea eta aztertzea.



-Bakoitzaren kontsumoari buruzko hausnarketa egitea eta autokontrolerako jarraibideak ezartzea.

-Drogen kontsumoak sexu harremanetan izan dezakeen eragina.

Ikasleen saioak amaitu ostean, saioen garapeneraren eta landutako edukien inguruan hitz egiteko saio bat egin zuen hezitzaileak gurasoekin.

EGILEAK: Elene Arratibel, Idrissa Sene, Iraide Udabe eta Jon Muñoz



ELKARRIZKETA

Martin Hernandez Beitia:

**“Mugerza Memoriala
irabazi nuenean oso pozik
sentitu nintzen”**

Oraingo honetan, gure institutuko Martin Hernandez Beitia korrikalariarekin aritu gara solasean. Dakizuenez, aurtengo Elgoibarko Mugerza Krosa irabazi du Martinek eta horrek eman digu aitzakia kirolaria elkarrizketatzeko. Gainera, elkarrizketa hau burutu ostean, beste garaipen bat ere lortu berri du. Bigarren urtez jarraian irabazi du Donostiako krosa ere –infantiletan iaz eta kadeteetan aurtun–. Bera da kadete mailako Euskadiko kros txapeliduna uneotan. Otsailaren 21ean, bestalde, Espainiako kros txapelketan parte hartu du, Burgosen.

Noiz hasi zinen Mugerza krosean parte hartzen? Zenbat aldiz hartu duzu parte lasterketa hone-tan?

Haur-mailan (alebinak) hasi nintzen parte har-tzen. Lau aldiz izan naiz bertan.

Zenbat denboratan amaitu zenuen lasterketa?

10 minutu eta 27 segundotan amaitu nuen las-terketa.

Aurten ez ezik, beste noizbait irabazi al duzu?

Bai. lazko lasterketa irabazi nuen.

Lasterketa egin aurretik, emaitz horiek lortzea espero zenuen?

Ez. Asmoa banuen, baina ez nuen espero.

Nola sentitu zinen irabazi zenuenean?

Irabazi nuenean, oso pozik sentitu nintzen.

Zure lasterketarik gogokoena al da? Eta, hala bada, zergatik?

Gogokoenetarikoa da, bai, Elgoibarren egiten delako.

Lasterketa hau egin ahal izateko, prestakuntza berezirik izan al duzu?

Ez, beti bezala aritu naiz.

Zer lortu duzu lasterketa hau irabazteagatik?

Kopa eta musu asko eman zizkidaten.

Nori eskaini diozu zure garaipena?

Garaipena familiar, lagunei eta lagun berezi bati eskaini diet.

Datorren urteari begira, zer nolako aurreikuspe-nak dituzu?

Aurtengoak bezalakoak.

EGILEAK: Iraide Udabe, Haritz Alberdi eta Julen Ayastuy

INAUTERIAK

Hilabete honetan, lehenengo mailako ikasleei joan gatzaizkie hainbat galdera egitera. Inauteriak hartu ditugu hizpide, ikasleontzat jai handia izaten dela kontuan hartuta. Aste horretan primeran pasa genuenez, inkesta honen bitartez gure poza zuei helaraztea erabaki dugu:

- 1.- Mozorrotu al zara? Zertaz?
- 2.- Bakarrik ala kuadrillarekin?
- 3.- Eskuz prestatu duzue mozorroa? Nola?
- 4.- Gauean irten zara? Noiz arte?
- 5.- Nola ospatzen dituzu inauteriak?
- 6.- Egunero mozorrotzen al zara?



Mireia Lili

- 1.- Bai, errusiarrez.
- 2.- Debako Banda Gaztearekin.
- 3.- Ez, erosi egin nuen.
- 4.- Bai, hamabiak arte.
- 5.- Bandarekin kaleetan zehar txirula jotzen.
- 6.- Ez, larunbatean bakarrik mozorrotu naiz.




Maria Faces

- 1.- Bai, pinguintz mozorrotu naiz.
- 2.- Kuadrillarekin.
- 3.- Bai, oihala erosi, josi eta mozorroa egin genuen.
- 4.- Bai, hamabiak ingurura arte.
- 5.- Lagunekin kalean ibiltzen.
- 6.- Bai, egunero mozorrotu naiz.



Ibon Ibarluzea

- 1.- Ez, baina mozorrotuko banintz neskaz jantziko nintzateke.
- 2.- Lagun batzuekin.
- 3.- Ez, erosi egingo nuke.
- 4.- Ez, ez naiz irten.
- 5.- Lagunekin jolasten.
- 6.- Ez.



Andoni Orio

- 1.- Bai, rockeroz jantzi naiz.
- 2.- Kuadrillako lagun batzuekin.
- 3.- Ez, erosi egin nuen.
- 4.- Bai, hamaikak aldera arte.
- 5.- Abesten pasa nuen eguna.
- 6.- Ez, larunbatean bakarrik.



Mainer Gorosabel

- 1.- Bai, errusiarrez jantzi naiz.
- 2.- Debako Banda Gaztearekin irten naiz.
- 3.- Bai, gurasoek egin didate.
- 4.- Bai, lagunak geratzen diren ordu-ra arte.
- 5.- Bandarekin kaleetan zehar zeharkako txirula jotzen.
- 6.- Bai, ahal izan nuen guztietan.



Lorena Ladera

- 1.- Bai, Minniez jantzi naiz.
- 2.- Kuadrillarekin mozorrotu naiz.
- 3.- Ez, erosi egin nuen.
- 4.- Bai, hamabiak arte gutxi gorabehera.
- 5.- Lagunekin ondo pasatzen ospatu dut.
- 6.- Hainbat egunetan mozorrotu naiz.



Julio Hurtado

- 1.- Bai, lapurrez mozorrotu naiz.
- 2.- Lehengusuarekin.
- 3.- Ez, ez nuen eskuz egin.
- 4.- Noski baietz, nahi dudana arte.
- 5.- Lehengusuarekin kalean ibiltzen.
- 6.- Ez, larunbatean bakarrik.




Javier Garcia

- 1.- Bai, Charlie Chaplinez jantzi naiz.
- 2.- Kuadrillako lagun batzuekin.
- 3.- Ez, erosi egin nuen.
- 4.- Ez, ez nintzen irten.
- 5.- Lagunekin ondo pasatzen.
- 6.- Ez, bi egunetan bakarrik.

EGILEAK: Ane Ladera, Haritz Alberdi, Jon Osa eta Lara Egaña

DENBORA-PASAK

a) LABIRINTOA



Aurkitu labirinto honetatik irteteko bidea!

TXISTEAK


*-San Mamesek ospitale bat dirudi.
-Zergatik?
-Talde guztiak puntuekin ateratzen direlako.

*Behin batean, gizon bat amaetxera joan zen bere ume jaioberria ikustera. Medikuarekin egin zuen topo eta hark zera esan zion:
-Egun on, jauna. Zure emaztea oso ongi dago. Umeari, ordea, Oxigenoa jarri diogu.
-Hau pend! Nik Xabier jarri nahi nion!

b) ASMAKIZUNAK

*Zer da zoparekin batera ahoan sartzen dena eta jaten ez dena?

*Aldrebesa naiz; neguan biluzik eta udan arropaz beteta. Zer naiz?



EGILEAK: Elene Arratibel, Iraide Udabe, Idrissa Sene eta Jon Muñoz

laguntzaileak:



babesleak:



Debako Udala



prentsa tailerra 2015-2016

Ane Amutxastegi
Elene Arratibel
Ane Ladera
Lara Egaña
Haritz Alberdi
Julen Ayastuy

Jon Muñoz
Naia Zabala
Ane Larrañaga
Iraide Udabe
Idrissa Sene
Jon Osa

Koordinatzailea: Tomas Ramos

AGENDA

OTSAILAK 28, IGANDEA

-10:00. **Ibilketa Nordikoa** (ikastaro aurreratua). Prezioa: 20 euro. Izen-ematea: Turismo Bulegoan edo 645 71 40 62.

-**Ipuin kontaketak**, Agirre jauregiko ispiluen gelan. 17:00etan: 3-7 urteko haurrentzat/18:00etan: 7-12 urtekoentzat.

MARTXOAK 4, OSTIRALA

-18:00. **Zuhatza Euskara Elkartearen Urteko Batzar Orokorra**.
-20:00. Azken urteotan Deban **Beldur Barik lehiaketara aurkeztutako lanen proiektzioa**, Agirre jauregian. Ondoren, Gaztelekuak prestatutako luncha -Martxoaren 8aren bueltan antolatutako ekimena-.

MARTXOAK 6, IGANDEA

-9:00. **Basatxori Kantarien VIII. Lehiaketa**, zumardian. Aurrez eman behar da izena (martxoaren 3a baino lehenago), 661452929 zenbakira deituta.

MARTXOAK 8, ASTEARTEA

-**Emakumeen Nazioarteko Eguna**.

*18:00: Klean Kantuz eta Txistulariak.

*19:00. Elkarretaratzea Foruen plazan, "Emakumeen indarra" lelopean. Ondoren, kalejira trikitilariekin.

MARTXOAK 9, ASTEAZKENA

-19:00. **Emakumezkoen Defentsarako Arte Martzialen inguruko erakustaldia**, Aldats pilotalekuan (Garikoitz Sillero irakasleak gidatuta). Martxoaren 8aren bueltan antolatu dute.

MARTXOAK 11, OSTIRALA

-22:30. "**Hotzikara**", helduentzako **ipuin erotikoak** (16 urte-tik gorakoentzat), Irish Pub Seven Clovers tabernan.

MARTXOAK 13, IGANDEA

-08:30. **Mendi irteera**. Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikaste-teak antolatuta. Ibilaldi neurtua Antzuolan.

Lehiaketak

-**"Zubeltzu" VII. Bertso Paper Sariketa**, Debako Udalak eta Zuhatza Elkarteak antolatuta. Lanak aurkezteko azken eguna: martxoak 18. Oinarriak ikuste-ko eta informazio gehiagorako: aldizkari honen 12. orrialdea.

-**"Herriak Garbi nahi ditugu, ekin!" bideo-lehiaketa**, Debanaturak Foru Aldundiaren laguntzarekin antolatuta. Lanak aurkezteko azken eguna:

apirilak 7. Informazio gehiagorako: aldizkari honen 12. orrialdea eta <http://herriakgarbi-rikzsb.blogspot.com.es>.

-**VIII. Elkar Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa**. Bi modalitate antolatu dira, haur eta gazteen adinaren arabera. Ipuin bat ilustratu beharko dute batzuek, eta ilustrazioak ipuin bilakatu besteez. Informazioa eta oinarriak: www.elkar.eus.

Liburu aurkezpenak

-Martxoaren 10ean (osteguna) "**Fernando Hoyos Rodriguez, Deban udatiar izandako gali-ziarra. Jesuita, komandante gerrilaria eta askatasunaren teologoa**" aldizkaria aurkeztu-ko dute Agirre jauregiko ispiluen gelan, 18:30ean. Jose Luis Albizu, Maria Pilar Hoyos, Lukax eta Nagore Dorronsoro dira egileak. Solasaldia egingo da bertan, "Ertamerikako behartsuen iraultza eta askatasunaren ebanjelioa, Fernando

Hoyos gogoan dugula" izenburupean. Juan Jose Etxeberria Sagastume S.J. Jesuita, Deustuko Unibertsitateko errektore-ordea arituko da hizlari.



Ikastaroak

-**Dantza Garaikide Ikastaroa** burutuko da martxoaren 29ko astean. Kulunka taldeak antolatu du ekimena eta Claudio Rojasek gidatuko du ikastaroa. Saioak bi egunetan izango dira, goizez. Izen-ematea: 25 euro.

-**KZguneak** arratsaldeko ordu-tegia izango du martxoan. Hainbat ikastaro eskainiko dira: Google Apps, IT Txartelak... (gaztelaniaz). Informazio gehiagorako: www.kz-gunea.net edo 943 02 36 29.

ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **martxoak 4, 5, 6, 14, 15, 16, 17.**

Burgoa Zuazo: **otsailak 19, 20, 21, 29.**
martxoak 1, 2, 3.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201
BURGOA ZUAZO: 667 338 890
Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: martxoak 5 eta 12

BURGOA ZUAZO: otsailak 20 eta 27
martxoak 19

9:30 - 13:30



RPS-183/12

ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843

Jari zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatzia

943 191 383
berriketan@zuhatzia.com



Hazirik
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA
telf.: 943 02 99 63
e-mail: hazirik@gmail.com



kutxa
kutxabank



AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95

API 447



URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Nº. 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunidadeen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net



RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 behe - Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

haizea
estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22. 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik

ISABEL
FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behe . 20820 DEBA
943 029 186

JAZKUNE
FRUTA PRODUKZIOA ETA ZERBITZUA
1975etik zuekin!



ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

Calbeton

JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

L.A.

LARRAMENDI
ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Mobila: 670411786
Mobila: 607453357
e-mail: larranaik@gmail.com

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)



ekodenda,
dietaetika,
belardenda

sasoi

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: teka terapia (INDIVA)-drenaje linfáticoak -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersandi, 14 943 19 24 42 sasoiako@hotmail.com

Zuhatza Euskara Elkarte: Urteko Batzar Orokorra

- Gai ordena:
 - 2015eko ekimenen balorazioa eta balantze ekonomikoa.
 - 2016ko aurrekontuak eta egitasmoak. Elkartearen gogoeta prozesuaren aurkezpena.
- Eguna: Martxoak 4, ostirala.
- Ordua: Arratsaldeko 18:00etan.
- Tokia: Zuhatza elkartearen bulegoan (Ifar kalean)



Kontaktuak: (koordinatzailea@zuhatza.com edo 943 191 383 telefonoa)
Besterik gabe, batzarrean elkar ikusiko dugulakoan agurtzen zaitugu.

Jarri zure publizitatea Berriketan aldizkarian!



943 191 383
berriketan@zuhatza.com

